

Abarak

UNAI BREA

Munduaren muturra mutur aurrean berriz ere

El conquistador del fin del mundo. ETB2.
Igandeetan, 22:00etan. 125 minutu.

ITZULI DA gure pantailetara, ez naiz gogoratzen zenbatgarrenez, *El conquistador del fin del mundo* lehiaketa-realitya, eta hedabideek nabarmendu egin dituzte lehenbiziko emanaldian lortutako ikusle kopuru onak. Zuzendaritza aldatu zuenez geroztik hizpide ditugu ETBren audientzia-datuak, besteak beste etengabeko maldan behera doazela gogoratzen digutelako, aukera dutenero, Lakuako lehengo maizterren bozeramaile-tza duten medio pribatuek. Ekua-zio erraza darabilte: audientzia gutxiago=PSE oso gaizki ari da. Patagoniako haize freskoa k mesede egingo dio Suriori.

Baina telebista-kate bat, batez ere publikoa bada, audientzia-datu hutsetan oinarrituta baloratzea arriskutsua da, jende askok ikusten dituen saioek ez dute berez telebista hobe bihurtzen. *El conquistador* horren adibide bikaina da nire ustez. Senideak, lagunak, fruta erosten diodan saltzailea... nire inguruan ia denak pozarren daude Iantzi, Oiartzabal, Korta eta abarren abenturak ikusgai dauzkatelako ostera ere. Niri, berriz, amorrua ematen dit diru publikoarekin halako saio bat ordaintzekak.

Lehiaketa da, ados; eta lehiaketek tradizioa dute telebista publikoan, dena ez baita eztabaida, politika eta dokumental. Baina *El conquistador del fin del mundo*, batez ere, reality showa da. Alegia, aitzakia baten inguruan, kasu honetan ustezko biziraupen-erronka, parte hartzaileen arteko liskarrak sortu eta liskar horiek kameraren bitartez etxeratzen dizkigun saioa.



Haserreak artifizialki nola sortzen diren ondo ezaguna da, besteak beste mota horretako saioen arduradunek eurek azaldu izan digutelako. “Normalean, jende berezia aukeratzen da casting-etan, eta berezien artean arruntago diren bi edo hiru jartzen dira, kaleko ikusle xehearen ikuspuntua lehiaketa barrutik eman dezaten”. Hala esan zigun behin Txema Montoyak, *El conquistador*-eko zuzendariak.

Auzo bakoitzeko “berexiena” jarri Patagoniako puntan, jateko gutxi eman, sortu nahi eta nahi ez bata bestearekin haserretzea eragingo duten egoerak, eta hortxe duzu ikusle kopuru itzela zure saioari begira. Esan dut dagoeneko: kate publikoek entretenimendua ere eman behar dute, eta *El conquistador del fin del mundo*-k, agidanez, asko entretenitzen du, baina horiek dira kate publiko batek zabaldu behar dituen baloreak?

ETBko garai bateko Entreenigarri eta Gazte Saioen buruak modu sinple honetan justifikatu zuten ETBk realityak ematea, hau idazten duenaren galderei erantzunez: “Jendeak oso gustura ikusten ditu era honetako saioak, beraz, zergatik ez ditugu geuk egingo?”. Eta zergatik ez *prime time*-an emango? Eta zergatik ez saioari buruzko “eztabaida” eman lehiaketaren biharamunean, ETArekin azken agiriak hitz egingo den mahai-ingurua, esaterako, gauerdira zokoratuta? Uste dut ez dudala ondo ulertu zerbitzu publikoarena. Baina are gutxiago ulertzen dut zerk huts egiten duen nire buruan, Juanito Oiartzabalek norbait popatik hartzera bidaltzen duela ikusteaz ezin gozatzeko, jende normalak bezala. ■

ZIO

● ZIENTZIA
● IRAKURLE
● ORORENTZAT

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Ororentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.

Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.



gure artean euskaraz

Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Deputación Foral de Bizkaia

BIZKAIA BIZIA